

Juantxu Urkiagaren Ut! taldea Igorren egongo da hilaren 15ean

13. orrialdea

Aurten be Lemoatxako lubakiak berreskuratuko dabez

Auzolandegia programako hogeit bat gazte eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Gerra Zibileko lubakiak garbitu eta konpontzen egongo dira abuztuko lehen hamabostaldian. Zaku barriak ipini eta trintxerak egokitu bakarrik ez, indusketa eta ikerketa lanek be segiduko dabe. **12. orrialdea**



Onditz Iturbe bigarren Andorrako Munduko Kopako proban

11. orrialdea

Areatza, Zeanuri eta auzoetako jaiak hileon

Areatzan, barriro hartuko dabez kaleak Areatzako Bandak, Bizkaiko Gaiteroak eta Danborrada Txikiak zein Handiak. Honeekaz batera urtengo dira txotxongilo, erraldoi eta buruhandiak. Zeanurin be berreskuratuko da txistularien Hiru zubiak kalejirea.



Girorik ez da faltauko musika talde entzutetsuakaz: Iheskide Zeanurin eta Areatzan, GBH eta Los Trogloditas barbarako. Hilaren 13an Zeanurin eta 26an Areatzan, goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da.

Auzoetan barriz, San Bizente, San Adrian, San Justo, San Lorentzo, Andra Mari, San Roke eta San Bartolome ospatuko ditue. Badagoz egun osoko edo hainbat eguneko egitarauak antolatu dabazan auzoak be. **5. eta 7. orrialdeak**

ARANTZAZU

Amelia Tiganus, abolizinoaren aldeko prostituta ohia

"Prostituzinoan, sexua gura dauan gizon bat, eta sexurik gura ez baina dirua behar dauan andra bat dagoz. Prostituzinotik kanpo, zelan deituko geunskio horrerik? Sexurik gura ez dauan andra bategaz sexu-harremanak izateari? Bortxaketea, sexu-abusua, sexu-erasoa". **8. eta 9. orrialdeak**

ZEBERIO

Mediku barik Zeberion

Osasun-zentroan garagarrik eta abuztuan medikurik ez dagoala-ta, birritan mobilizau dira herriar ugari EH Bilduk deituta. Zeberioko arazoan baino, Osakidetzaeren eredu aldaketan ipini dabe fokua, pribatizazioaren bidea hartu dauala salatuta. Uda garaian, EAEko 65 zentro dagoz zarratuta edo mediku barik. **7. orrialdea**

LEMOA

Pabiloi bateko sute batek etxe barik itxi ditu hamar lemoaztar

Garagarriaren 20an sutea izetu zan pabiloi batean eta 50 tona plastiko, 4.000 litro gasoil eta 50 bat auto erreta, eraikin osoak egin eban behera. Suhiltzaileek lau egun behar izan ebezan sua guztiz amatetako.

Holan, zortzi etxebizitzetan bizi ziran hamar herriarrek bizileku barik gelditu dira. Kalte personalik egon ez dan arren, txakur batek galdu eban bizia. Lehenengo egunak ostatu batean pasau ebezan familia eta lagunen etxeetara joan ezin izan ziranak baina Udalak, Aldundiak eta Mankomunitadeak larrialdietarako etxeetan kokatu dabez daborduko. **7. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant



EKIN
eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

IES LA MICROBIOTA, IDIOTA!

Liburuetan fikzino zalea naz, bai-na osasunari eta bidaiei buruzko liburu asko be irakurten dodaz. Gainera beti esan dot aitita sano intelijentea euki dodala, harek beti esaten eustan nire liburuen atzeko partea leidukeran: "ez egizu fikzinoa leidu, errealidadea leidu eta ikasi". Holan ba, gaurko kritika hau zure omenez, aitita.

Sari Arponen mediku eta mikrobiotan adituaren liburu hau ezin gomendatu barik itxi. Nork irakurteko? Edonork. Ez, danok!

Zergaitik? Gaur egungo bizitza estilo moderno honek gaixotu egiten gaitualako. Zelan gainera, pin, pan, konturatu barik hile-rokoagaz arazoak, haurdun ezin gelditu, min "kronikoak", buru-hauste handien oinarri izango di-

ran (neuro) inflamazinoak, gaixotasun autoimmuneak, kantzerrak eta beste hainbat gaixotasun. Ez lagunok, ez gagoz gaixotutetik urrun. Eta sarrera honegaz ez dot inor bildurru gura, ez da ikuspuntu pesimista bat. Errealidadea da. Eta ez. Ez gara arratziar guztiok biher gaixotuko. Baina gure esku dago zati handi batean burukomin handi horreetatik iges egitea. Zelan? Gure esku hartuaz norbere osasuna. Bai, behar doguz medikuak, ospitaleak eta analisiak. Baina (eta parkatu hau irakurten zabizien osasun munduko langileak, igual ez da zuon kasua izango eta) mediku, fisio, osteopata, dentista eta beste profesional asko (ez danak) atzeratuta gelditu dira gaur egun dagozan iker-

keta barri askoren ondoan. Baina guk, paziente inpazienteok ezin doguz erruduntzat jo, noren teila-tu gainean dago pelotea? Norena da osasunik inportanteena? Nire kasuan, nirea. Zurean?

Horregaitik dakart liburu hau. Bertan Sarik argi ixten dau ze inportantea dan mikrobiota jago-tea. Ez bakarrik "ondo" jaten, zer da ba ondo jatea? Bakotxarentzat berena igual. Ba jakin daigun mikrobiotea ez dagoala tripetan bakarrik. Azalean be badaukagu, agoan, sexu organoetan... Sarik azalduko deuskuz danen bete-beharrak eta bakotxaren garrantzia. Ondo egiten dogu egunero beharrera joan orduko jaboia-gaz dutxetan? Badakizue mosu bat emoten deusagunean bata bes-teari bitxitoak pasetan gabizala? Onak eta txarrak. Danak ez dira txarrak eta. Baina ez hori bakarrik.

Emozinoak zer? Estresa zer? Estresa... bidelagun gutariko askoren kasuan. Ba bai, danak dauka bere pisua norbere osasunean. Eta kirola? Badakigu erantzuna.

Hiru atal daukaz liburuak: lehenengoan gure bakteriak, birus, onddo eta bestelako lagunak aurkeztuko deuskuz. Bigarreanean, zelan topau oreka mundu desorekatu honetan. Eta hirugarrenean, zelan hartu gure osasuna gure esku. Eta ez, ez da tostoia, hori pentsetan bazabiz. Badaukaz berba teknikoak hemen eta han, baina barre be hainbat egingo dozu. Izan be, Arponenek umore handiz idazten dau dibulgazino liburu hau eta irakurle lez, asko eskertutekoa da.

Nire ikuspuntua argi dago. Irakurle, paziente inpaziente, mediku, fisio, dentista, ginekologo, zarena zarella, zure osasunak eskertuko dau oingandik hasi ezkerro ikasten zelan funtzionetan dauan miresgarria dan zure gorputzak.

Nerea Goioaga



Sari Arponen
¡Es la microbiota, idiota!
Alenta argitaletxea, 2021
368 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abuztuaren 1etik 7ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 8tik 14ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 15etik 21era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 22tik 28ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitate.*

arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

* **Adi udako ordutegiari**

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Asier Abrisketa.** **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (VII).
Kale berbakunea sustatu guran

Aditz bat hartu eta beragaz alkarritzeta bat sortuko dogu.

Eroan:

- Zer daroak motxilan?
- Meriendea jaroat. Hik eztaroak ezer meriendarako ala?
- Ba kontua dok ogitartekoa eskuan eroan joatela eta txakur batek eroan jostek!!
- Ba erdibana egingo juk orduan!!

- Zer daroazu motxilan?
- Meriendea daroat. Zuk eztaroazu ezer meriendarako ala?
- Ba kontua da ogitartekoa eskuan eroan dodala eta txakur batek eroan deusta!!
- Ba erdibana egingo dogu orduan!!

ERETXIA

Klima-aldaketea
eta ur
baliabideak

Klima-aldaketearen adierazpenak garrantzi bereziagaz islatzen dira ziklo hidrologikoan, eta, ondorioz, funzino ekohidrologikoetarako eta giza hornidurarako baliabide hidrikoen eskuragarritasunean. Izatez, dudarik ez dago atzen hamarkadetan lur gaineko eta lurpeko uren dinamikan aldaketak izan dirala.

Halanda be, ziklo hidrologikoan klimak dituan aldaketak giza jarduerak baliabide hidrikoak ustiatzearen ondoriozko inpaktuei ghitzen jakiez, uraren kalidadearen eta eskuragarritasunaren gaineko presino zuzenakaz. Beraz, lurralde jakin bateko dinamika hidrologikoaren aldaketak faktore klimatikoaren eta faktore antropikoaren ondorio izango dira. Bereziki garrantzitsua izango da ikustea baliabidearen kudeaketea zelan egokituko dan eskaera handiago eta, ziurrenik, baliabidearen erabilgarritasun txikiagoa daukan egoera batera, ingurumena zaintzeako exigentziagaz batera.

Klima-aldaketeak ur baliabideetan daukazan eragin nagusiak ibaietako uren jarioa eta akuiferoen birkarga gixitzeagaz gain, uraren kalidade hidrokimikoaren aldatzeagaz lotuta dagoz. Halanda be, giza jatorriko afekzinoak honako honeetatik eratorten dira: a) ibaietan eta akuiferoetan ura hartzea giza beharrak hornitzeko; b) azaleko jariatzeari eta akuiferoen birkargari eragiten deuseen lurzoruaeren erabileren aldaketak; c) baliabidearen kalidadearen alteraziotik, azaleko nahiz lurpeko urei eragiten deuseen gai kutsatzaileak isurtzeagaitik.

Eskualde mailako sistema hidrogeologikoek urrakortasun txikiagoa izango dabe, konfigurazino geologikoa, baliabideen bolumen handiagoa eta metatutako uren afekzinoen transferentzia erritmoa dirala-ta. Halanda be, Euskadiren kasuan, akuiferoak eta arro hidrografikoak txikiagoak



JORDI FONT CAPÓ

Hidrogeologo aholkularia.
Geologian doktorea eta
Meatzeetako ingeniari teknikoa

dira; gainera, sistema karstikoek (oso ugariak burualdeko mendiguneetan) lurpeko fluxuak abiadura azkarrekoak izatea errazten dabe, eta faktore horreek guztiek murriztu egiten dabe akuiferoen eta ibai-ibilguen erresilientzia muturreko gertaera klimatikoaren aurrean. Beraz, akuifero eta arro handiagoetan ez bezala, horreek kalteberatasun maila handiagoa izango dabe.

Akuiferoen kalteberatasuna, alderdi kualitatiboei jagokonez (uraren kalidadea), lotuta dago tokiko ziklo hidrologikoko klima-aldaketakaz eta kutsatzaileak lurpean migratzen eta banatzen laguntzen dauan baliabidearen ustiapenagaz. Kalteberatasuna aztertzean, uraren kudeaketeak inpaktuak arintzeko eta etorkizuneko egoera barrietara egokitzeko daukan garrantzia nabarmentzen da. Sistema hidrologikoak ez dira hain kalteberak izango, faktoreen gainean jarduteko gaitasuna biziagoa eta eraginkorragoa dan heinean.

Ondorioz, kontuan hartu beharko dira klima-aldaketeak ingurune hidrikoan dituan eraginak; eragin hau globala bada be, eskualde edo tokiko baliabide hidrikoetan eragin handiagoa izango dabe. Hortaz, klima-aldaketeak erantzun globala behar dau, baina horrek ez dau esan gura eskualde edo toki mailan jardun ezin danik. Klima-aldaketeak akuifero edo ibai arro baktotxean daukan inpaktua hobeto ezetuteak, baliabide hidrikoaren aldakortasuna kontuan hartuta (emarien aldakortasuna urte sasoiaren arabera, lehorte garaietako aldaketak), aukera emongo leuke datozen urteetan baliabide hidrikoen erabilgarritasuna hobeto ezetuteko eta aldaketa horren ondorioak arintzeko, ingurune hidrikoaren gaineko giza-jarduketek edo eta afekzinoek kontrola daikien faktoreetan eraginaz.

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



PILI ÁLVAREZ
MOLÉS

"El pueblo"

📌 "El pueblo", ze berba sinpleak eta zenbat sentimendu sortarazoten deustaz. Berba horreen atzean dagozan sentimentuak asko eta oso potenteak dira.

Txikitatik joaten ginan amaren familiako herrira, bera be txikitant joaten zan bezala, eta gaur egun semeagaz, jarraitzen dot joaten.

Bertara ailegau eta nebakaz berehala hartzean genduan bizikletea, kalera guraso barik! Goizean etxetik atera eta gaua arte aita eta ama ikusi ez; txangoak egin; erredera joan... eta gartzetan jaietako kuadrillako lokalean milaka ordu pasau; orkestara joan eta *Paquito el chocolatero* jantzatu; herriz herriz joan jaietan; kuadrilla eta udako ligeak...

Familiako momentuak be baegozan eta oso politak ziran, orduak eta orduak pasetan genduzan izeko nagusiaren etxean batailatxo zaharrak entzuten.

Andra ederra zan, zelango energia eukien antxinako herriko andrak! 05:00etan altxau eta lokartu arte ezin gelditu: gosaria prestatu familia guztientzako; animaliak gobernau; erredera joan familia guztientzako erropa eskuz garbitera eta abar luze bat.

Bartzelonara bueltau behar genduanean, zelango drama! Kotxean negarrez sartu eta eskolara ailegau bezain pronto herriari buruz berba egin. Behin, herririk ez eukan lagun batek esan eustan Molinose-ra eroateko, joan ostean, hau esan eustan: "Ointxe ulertzen dot zergaitik hainbeste *el pueblo, el pueblo...*".

Nagusia izanda, eta neguan be, bertan bakardadeaz be gozatu dot; tximiniako kea ikusten, aupegian neguko hotza sentitzen neban bitartean, hutsik egozan kaleetan paseatzean; denpora luzea egoten, liburu bat irakurten ezer entzun barik, kaineren bat hartzean tabernan egoanagaz...

Gaur egun, ume txiki bategaz, bakardaderik ez dot. Eta itzelezko poza hartzean dot, ikusten dodan bakotxean umea pozik dagoala herrian *yaya* eta *yayogaz*.

Sentimentu honeez gain, Molinos oso polita da ikusteko, animau eta uda honetan etorri bisita bat egitera, *Teruel Existe!*

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

Urkizuko Palazio etxea



2022an Igorreko Udalak ateratako egutegiko abuztuko irudia.

BEGI TXINDORRA

Andeetako kontakizun zaharrek dinoe, Huallallo eta Pariacaca beti istiluetan egozan jainkoak zirala. Baina gorrotoaren erdian, honeen seme-alabetako bi, Amaru eta Huaytapallana, maitemindu eta bost seme-alaba izan ebezan. Hau jakinda, Huallallo Amaru menditik behera bota eban.

Mendekua hartzeako gogoz, Amaruren aitak, Huaytapallana ito eban Carhuacocha lakuko uretan eta seme-alabak be, inguruetan. Jainko bien arteko gerrea izetu zan eta Huallallo, burrukea galduta, oihanera erretirau behar izan zan bertako gizonen odola irenstera, gizonak zoritxarraren errudun zirala uste ebalako. Baina Wiracocha jainko gorenak, krudelkeria guztiak zigortzeko, mendi bihurtu ebazan jainko biak.

Inguruko herritarrek dinoenez, mendi bien arteko edur eta izotza urtzean berbztuko da jainkoen arteko gerrea. Ez da ba denpora asko faltauko, ikerketek azaleratzen dabenez, atzen urteetan Andetako izotz masearen %42a urtu da-ta.

Peruko Carhuacocha lakutik heldu jaku, Garazi Santosek bialduta, BEGIRUK antolatutako Oporretako Argazki Lehiaketako lehen argazkia. Eta zurea noz helduko jaku?





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 940
R.P.S. 31/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Auzoetan be
jaiak

Erredakzinoa

Herrietan bakarrik ez, auzoetan be badabiz jaiak berreskuratzen. Ermitetan mezea entzuteko auke-
rea eta jatekoa egongo da auzo gehienetan. Gero erromeriak, bola eta karta jokoak, txapelketa gastro-
nomikoak eta bestelango ekintzak be antolatu dabez leku askotan.

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioko San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerinmendiko sanjustoak izaten dira oingo hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murta-
tzan, Lemoako Azurrekan, Zeanurin eta Zeberioko Elizondon ospatzen dabez. Hilaren Erdian, Igorren eta Zeberio-
ganen Andra Mariak izaten dira. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Hilaren 24an, sanbar-
tolomeak ospatuko ditue Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Artaun (Dima)

Abuztuak 6, zapatua

18:30ean, txupinazioa eta Lourdes Soraluze XXIII. Bola Txapelke-
tearen hasikerea.
20:00etan, txitxi-burduntzia.
22:00etan, Eingo taldeagaz erro-
meria.

Abuztuak 7, domekea

12:00etan, bits jaiak.
13:00etan, trikipotea.
19:00etan, herri kirolak: harrijaso-
tzaileak, Karmele Gisasola eta Inhar Urruzuno; trontzalariak; azkolariak, Aitzol Atutxa eta Julen Larrea; eta ingudea, Karmele Gisasola.
20:30ean, trikitilariak, mozerro erakusketea eta erifearen zozke-
tea. Ostein, txokolatea.

Otzerinmendi (Zeanuri)

Abuztuak 6, zapatua

12:00etan, mezea San Juston, gero barauskarria eta herriko txistulariak.
17:30ean, Mus eta Briska Txapelketak, eta bola jokoa. Sari banaketea amaitzerakoan.

Azurreka (Lemoa)

Abuztuak 10, eguaztena

12:00etan, mezea San Lontxon.
13:00etan, kopaua eta trikitilariak.
13:30ean, erromeria.
18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

San Lorentzo, Murtatza (Bedia)

Abuztuak 10, eguaztena

12:00etan, mezea eta ostein barauskarria eta trikitixea.
17:00etan, Briska Txapelketea.

San Lontxo (Uribe-Otzerinmendi)

Abuztuak 10, eguaztena

12:00etan, meza nagusia eta ostein barauskarria eta herriko txistulariak.
17:30ean, bola jokoa, Uribe-Otzerinmendiko kanporaketea.
18:30ean, Eingo taldeagaz jantzaldia.

Abuztuak 11, eguna

12:00etan, arimen aldeko mezea.
13:00etan, andren bola jokoa.
17:30ean, bola jokoa (herriko fi-
nala) eta ostein urdaia eta txokolatea danontzat.

Igorreko Udako Jaia

Abuztuak 12, barikua

18:00etan, futbola, XXXIV. Igorreko Saria, Arratia-Baskonia. Urbietan.

Abuztuak 13, zapatua

18:00etan, futbola, XXXIV. Igorreko Saria, Urduliz-Padura. Urbietan.

Abuztuak 14, domeka

18:00etan, futbola, XXXIV. Igorreko Sariaren finala. Urbieta zelaian.

Abuztuak 15, astelehena

12:30ean, mezea; 13:00etan, kopaua Goiko Plazan; 17:00etan, Briska Txapelketea Bidebarriko plazan; 17:30ean, Igel Txapelketea Bidebarrin; 19:00etan, txokolate jana Bidebarrin eta 20:00etan, Ut! taldea.

San Roke (Bedia)

Abuztuak 16, martitzena

12:00etan, mezea eta ostein ha-
maiketakoa eta trikitixea.

Olazabal (Dima)

Abuztuak 15, astelehena

12:30ean Txakoli Egunaren ha-
sikerea.

Abuztuak 16, martitzena

08:00etan, Ilunbeko atxara ibilaldia.
12:00etan, meza nagusia.
12:30ean, umeentzako jolasak.
13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea.
16:30ean, Umeen Bola Txapelketea.
18:00etan, umeentzako opariak.
18:30ean, Patrice Dumoraren kontzertua.
19:30ean, txokolatea.
20:00etan, erifearen zozketea.

Abuztuak 17, eguaztena

14:00ean, auzo bazkaria.

San Antolin (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, barikua

12:00etan, mezea eta gero kopaua.
14:00etan, Baba Lehiaketako la-
pikoen aurkezpena.
17:00etan, Joxe Mendizabal erromeria.
Autobus zerbitzua egongo da: 10:00-
15:00 eta 17:00-21:00. Egun horre-
tarako Lemoatxan mahaia gordetea gura daben taldeek edo partikularrek udaletxean emon behar dabe izena hilaren 16a baino lehen.

ZEANURI

Lau egunez ospatuko ditue
zeanuriztarrek andramariak

Abuztuaren 13an, Gorbeia-
ko igoereagaz hasiko da Zeanuriko jaietako egitaraua eta ez da hilaren 16ra arte jaiak geldituko. Tartean, txistulariek Hiru zubiak egingo ditue egunero eta musikea izango da protagonista, l-
heskideren kontzertua eta erromeriak besteak beste.



Erredakzinoa

Txupinazo egunaren, Ume eta Jubiladuen egunaren, Andra Mari egunaren eta San Roke egunaren inguruan antolatu dabez aurtengo jaiak Zeanurin. Lehenengoan gazteak izango dira protagonistak, kuadrillen arteko jokoak, elektrotxarangea eta kontzertuak egongo dira-ta, zapa-
tuan. Domekan, jolas parkeagaz eta playback-agaz izango dabe txikerrenek gozatzeko aukerea. Jubiladuentzako, kopaua egongo da eta Ardi Txakur Txapelketea Torreko soloan.

Andra Mari egunean izango da meza nagusia eta egun osoan jarraituko dau musikeak: txistu eta trikitixak, Kresala eta Demode Quartet-en emonaldiak eta Dj Jotatxo. Atzen egunean barriz, San Roke eguna, jana izango da protagonista. Paella, Tortilla eta Mousse Txapelketak egongo dira goizean. Arrastian barriz, karta-jokoak. Jaien amaierera txistularien atzen bireagaz amaituko da, hiru zubietatik.

Abuztuak 12, barikua

19:00etan, Zeanuriko Pelota Txapelketako finalak frontoi zar-
ratuan. Kadeteak: Elorz II-Egilior vs Ramirez-Lopez; Promesak: Artaraz-Bernaola vs Beitia II-Arroi-
ta; Nagusiak: Mendia-Beitia I vs Agirreamalloa-Barturen.

Abuztuak 13, zapatua

08:00etan, Gorbeia-
ko igoerea.
15:00etan, herri bazkaria.
17:00etan, Rally Umorestikoa, kuadrillen arteko jokoak.
18:00etan, txupinazioa eta Hiru zubiak herriko txistulari eta trikiti-
lariakaz.
19:00etan, Burrunba elektrotxarangea.
22:30ean, gazteen gaua. La To-
padora eta l-
heskide taldeak.
Jarraian Zirkinik bez taldeagaz erromeria.

Abuztuak 14, domeka

11:00etan, Hiru zubiak herriko txistulariakaz.
Jarraian 14:00etara arte umeen jolas parkea.
13:00etan, jubiladuen kopaua

herriko plazan, herriko txistularien musikeagaz girotuta.

16:00etatik 18:00etara, umeen jolas parkea.

18:00etan, Zeanuriko III. Arraza Libreko Ardi Txakur Txapelketea Torreko soloan.

22:00etan, Zeanuri Loran, Zea-
nuriko Ortuen eta Jaietako Kartel Txapelketako sari banaketea.
Jarraian playback-ak eta gero Le-
hian taldeagaz erromeria.

Abuztuak 15, astelehena

11:00etan, Hiru zubiak herriko txistulariakaz.
11:00etan, meza nagusia, Andra Mari parrokian.
Ostein, Arratiako Eingo eskolako trikitilariak girotuko dabez herriko plaza eta tabernak.
19:00etan, Kresala euskal jantza taldearen emonaldia.
22:00etan, Demode Quartet tal-
dearen musika emonaldia.
Jarraian DJ Jotatxogaz erromeria.

Abuztuak 16, martitzena, San Roke eguna. Sukaldarien eguna

11:00etan, txapelketetarako izen emotea.
11:00etan, meza nagusia, Andra Mari parrokian.
14:00etan, paella, tortilla eta moussen aurkezpena.
14:30ean, sari banaketea eta he-
rri bazkaria plazan.
17:00etan, Zeanuriko Mus eta Briska Txapelketea.
20:00etan, Xaibor-egaz errome-
ria.
22:00etan, txokolatea.
23:00etan, Hiru zubiak herriko txistulariakaz eta jaien amaierera.



Zeanuri Udalak

Jai batzordeak eta Zeanuriko Udalak

Gora Andra Mariak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ZEANURI

Eleuterio Goikoetxea omendu eta Egiriñaoko txabolearen mendeurrena ospatu eben Zeanurín

Ehundaka lagun alkartu ziran garagarriaren 9an, Egiriñaon, Eleuterioren txabolearen mendeurrena ospatzeko eta, bide batez, Eleuterio Goikoetxea (Zeanuri, 1888-1956) gogoratu eta omentzeko, egun horretan Egiriñaoko aterpe-ostatua inaugurau zala 100 beteten ziran eta.

Jon Urutxurtu

Ekitaldia Zeanuriko Udalak antolatatu eban. Mendizale batzuk San Justotik abiatu ziran, prestatutako ibilbide gidatua eginez; beste batzuk Pagomakurretik igon eben, eta Egiriñaon alkartu ziran danak 12:00etarako. Ordu horretan Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkateak berbea hartu eban, ospakizunaren zergaitia azalduz: "Alde batetik, Eleuterio Goikoetxea bere sasoiari aitzindari eta bisionario bat izan zalako; negozio partikular bat sortu eban, baina aldi berean mendizaletasunak eta mendiko turismoak Zeanuriko herriaren ekonomian euki eikean garrantzia konturatu zan. Bestalde, gaur egiten doguzan gauza asko, oin dala 100 urte gure herrian egiten zirala eta gure aurrekoengandik zer ikasi badaukagula ohartuteko". Eskerrak emon eutsiezan ospakizunean parte hartu edo lagundu eben guztiei eta Egiriñaora hurreratu ziranei: Eleuterioren senitartekoei, gaur egun aterpearen jaubeak diran hiru mendi taldeei —Juventus, Alpino, Arnotegi (Iberdrola)—, Bizkaiko Mendi Federandeari eta Gorbeialderi.

Jarraian, Eleuterioren ilobetako bik, Kepa Goikoetxeak eta Izaskun

Angoitiak, jatorrizko txabolearen horman Zeanuriko Udalak jarri eban harrizko plaka oroigarria azaleratu eben, eta ostean Egiriñaon alkartu ziran guztien artean, *Eleuterioren txabolan* abestu eben herriko txistularien laguntzeagaz.

Amaitzeko Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen eskutik barauskarria egon zan Egiriñaora hurreratu ziran guztientzat.

San Inazio egunean mezea
Egiriñaon dagoan Edurretako Amaren ermiteak be ehun urte bete ditu aurten, Eleuterio Goikoetxeak eregi eban txaboleagaz batera eta. Zementuzko eraikin txiki bat da, kanoi-bobeda modukoa, mazela arrokatu batean sartua. 3x2,25 metro neurtzean dau eta sarrera-atea in-

guratzen dauan burdinazko hesi txiki bategaz itxita dago. Oin dala hogeta hamar bat urtera arte hemen, udan domeketan eta jaiegunetan artzainek eta bisitariak mezea entzuteko aukerea izaten eben.

Aurten San Inazio egunean, Jose Mari Kortazar Zeanuriko parrokoak, atzen 11 urteetan egin dauan moduan mezea emon eban. Ermita txikia danek, Eleuterioren txabolearen aurrean emon eban kanpaina-mezea, bere hamabigarren eta azken mezea Gorbeian, aurrerantzean Gernika aldean egingo daualako bere lana abade moduan eta Lea-Artibai eta Urdaibain bikario moduan.

Meza ostean, hara hurreratu ziran guztientzat barauskarria banatu eban Zeanuriko Udalak.



Eleuterioren ilobak, Kepa Goikoetxea eta Izaskun Angoitia, oroimenezko plaka azaleratzen, Eider Ajuriagerra alkatearen aurrean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Herrion autodeterminazino eskubidearen alde, Haltzamendi argiztau eben arratiarrek

Erredakzinoa

Garagarriaren 2ko gauean eroan eban aurrera Gure Eskuk 'Pirinioetako Bidea' ekimena. Kataluniarrekaz batera, 300 tontorretik gora izetu ziren Kantauri itsasotik Mediterraneora. Arratiarren kasuan, Haltzamendin batu ziran 60 lagun inguru "abesti eta irrintzi artean".

Euskal Herriarrek izetu beharreko 115 tontorretatik bat bete eben arratiarrek Gure Eskuren deialdiari jarraituta, 813 metroko garaieran dagoan Haltzamendi. "Gau magikoa izan zan, itxaropen

argiak izetu doguz" azpimarratu dau Sara Gutierrezek, Pirinioetako Bidea ekimenaren Arratiako koordinatzaileak, BEGITU.

Ortzaizen alkarregaz batu, eta igoera aldapatsua txiri-txiri baina gogoz igon eben arratiarrek. Tontorretik 200 bat metrora gelditu ziran deskantsau, afaldu eta denporea egiteko. Izan be, tontorrean haize bolada biziak egozan eta ez ziran 21:45era arte gora igon. Tontorrean, iluntzeak itxitako parajeakaz gozatu ostean izetu ebezan argi guztiak. "Abesti eta irrintzi artean ordu



bete emon genduan tontorrean, inguruko mendietan ikusten ziran argiak begiratzen", azaldu dau Gutierrezek.

DIMA

Bearen ustezko erasotzaileak urruntze-agindua apurtzen dauala salatu dabe dimoztarrek

Andraizeak Dimako talde feministeak deituta, garagarriaren 3an egin eben alkarretaratzea Bea eta semearen segurtasungaitik arduratuta

Dimako plazan. Izan be, hilketa saiakerea egotzita baldintzapeko askatasunean dagoan gizona Dimara sartu edo biktimarengana hurbiltzean Beak jasoten dauan alarma hainbat aldiz ibili da joka.

Erredakzinoa

Garagarriaren 2an Andraizeak talde feministeak atzen orduko deialdia egin eban barriro Bea eta semearentzako justizia eske. Arrazoia egun horretan bertan, goizaldeko 05:00etan, gertatutakoa izan zan. Bearen ahiztak dei bat jaso eban Cometatik, lokalizazio aparailuak kudeatzen dauzan enpresea: "Non zagozie? Erasotzailea desagertuta dago". Eguerdira arte ez eben lortu erasotzailea topatzea. Hau ez da gertaera isolatua izan zan, Andraizeako kide batek BEGITU azaldu eutsanez, astegoiaren askotan jasoten dauz alarma dei eta mezuak.

Alarmeak, ustezko erasotzaileak epaileak agindutako arauak apurtzerakoan jotzen dau: Dimara sartzerakoan, Bearengana hurbiltzerakoan, kobertura bako lekuetan dagoanean edo aparailua batera barik geratzeko. Epaileak aprilean abisau eban gizona, ezin ebazala arauak apurtu, kartzelara bueltatzeko mehatxupean. Orduan, alarmeak ez eban aste batzuetan abisurik emon. "Komilla arteko lasaitasunak" gizonak baldintzapeko askatasunaren agindua sinatu arte iraun eban. Izan be, egun horretatik sarritan haustu dauz arauak.

Andraizeako kide batek azaldu dauanez, "txarrena, inolako ondoriorik ez egotea" da: "Durango eta Bizkaiko arlo judizialaren funtzionamentua lotsagarria da". Bearen abogaduak alarma bakoaren barri emoten dau bai epaitegian bai Cometa enpresan, baina ez da epaileak egindako mehatxua gauzatu.

Zergatik astegoiaren?

Andraizeako kideak salatu dau, astegoiaren guztietan arauak

haustearen arrazoia Bearen bizitzan eragitea dala. Izan be, Bea argazkilaria da eta astegoiaren daukaz erreportajeak: ezkontzak, jaunartzeak... "Fisikoki ez dago bere ondoan baina bai psikologikoki, tipoak badaki zelan min egin" azaldu dau. Biktimea egoera horretan bizitea bidezkoa ez dala azpimarratu dau. Izan be, Bea beharrean dagoanean ez dago semeagaz batera eta, alarmeak jotzerakoan "bildurra eta panikoa" sentiduten dau.

Borja Irizar abogadua

Ustezko erasotzailearen abogaduak oster, Borja Irizarrek, Andraizearen bersinoa "zehazteko" idatzia bialdu eban BEGITU. Honek dinoanez, "Eder jauna ez dago aske epaile aldaketea dala, baizik eta Instrukzino epaile eskudun batek emondako auto baten bidez, eta Probintzia Auzitegiak berretsita, bederatzi hila-beteko espetxealdia ostean".

"Ederrek ez ditu bete barik itxi auto horretan jasotako betebeharrak. Eta horrela egiaztatu da ustezko biktimearen letratuak ustezko ez-beteteengaitik askatasuna errebokatzeko eskatu dauan bakoitzean, bai Durangoko Instrukzino Epaitegian, bai Bizkaiko Probintzia Auzitegian. Ez dago arazorik ebazpen horreek eskatzen dauanaren esku jartzeko, egia erri behar bezala emoteko".

Beste alde batetik, defendidu dau Ederrek ez dauzala epailearen agindurik apurtu: "Beatrizek alarma bat jaso dauan bakoitzean, bere jatorria gailu elektronikoaren arazoetan edo estaldura faltan egon da". Holan, Andraizeak-ek egia esaten ez dauala salatu dau: "Jakinaren gainean badago, gezurretan dabil; gainera, Zigor Kodearen 205. artikuluan jasotako delitua egiten dau".

ZEBERIO

Lehen arreta babesteko mobilizau dira zeberioztarrak

Erredakzinoa

Udan medikurik ez dagoala-ta, Zeberioko EH Bilduk alkarretara-tze bi egin ebazan, bata bagilaren 29an eta bestea garagarriaren 8an. "Zeberio medikua behar dau, lehen arreta itolarrian!" lelopean 80 persona inguru alkartu ziran lehen mobilizazioan. Holan, udaletxean aldaketak ekarri ebazan gatazkeak. Izan be, EAJk maiatzean albo batera itxitako lehen arreta indartzearen aldeko mozinoa babestu eban atzenean.

Zeberioko EH Bilduk maiatzaren 25eko Udalbatzean aurkeztu gura izan eban lehenengoz herriko lehen arreta zerbitzua indartzearen aldeko mozinoa. Eskaera nagusia, Udalak Osasun sailari osasun-zentroaren zerbitzuek pandemia aurretiko mailari eusteko eskaria egitea izan zan. Horregaz batera, lehen arreta garai barrietara egokitu eta arreta komunitarioa garatzea, aurrez-aurreko konsultei lehenetsuna emotea eta iraupen luzeko kontratuak lehenestea eskatzen zan. Baina EH Bilduk salatu ebanez, EAJren Udal Gobernuak "mozinoa tratatzeari uko egin" eutsan, beraz ez zan bozkatu.

Hurrengo astean, bagilak 5,

Ezohiko Osoko Bilkura batean bozkatu zan atzenean EH Bilduren mozinoa eta ahobatez onartu zan, EAJren aldeko botoakaz. Roberto Calleja EH Bilduko zinegotzia pozik agertu zan BEGITU aukera barriagaz: "Egoki ikusten dogu EAJren jarrera aldaketea. Kontuan izan behar da, maiatzean be aurkeztu gura izan genduala mozino bardina, baina EAJk ez eban udalbatzarako onartu. Herrian dagoan haserre eta kezka sentidu dabela uste dogu".

Osakidetzaren eredu aldaketea
 Bagila hasikera Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak ohartarazo eban, medikuen faltan, oporraldian osasun-zentro eta anbulatorio batzuk zarratzeko aukerea mahai gainean egoala, edo zentroetan erizainak baino ez geratzea. Horregaz batera, epe luzerako "aldaketa kulturala" beharrezkoa dala iragarri eban Sagardui, zerbitzu espezializaduetarako distantzia handiagoak egin beharra. Laxia Olagorta, EH Bilduko zinegotziaren arabera "Murrizketa bat beste baten ostetik dator eta osasun publikoak kalidadearen alde egin beharrean, Eusko Jaurlaritzak pribatizazioaren bidea hartu dau".

LEMOA

Sute batek etxe barik itxi dauz hamar lemoaztar

Erredakzinoa

Garagarriaren 20an, sutea biztu zan gauez Estazinoa kaleko pabiloi batean. Eraikin osoa etorri zan behera eta holan, lantegi bi eta zortzi etxebizitza galdu ziran. Kalteei modu bateratu eta eraginkorrean aurre egiteko, Lemoako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak koordinazio-mahai bat osotu dabe.

Lemoako suteak epe luzerako ondorioak eragin dauz. Oindino ikerketa lanak amaitu barik, ez dago argituta zein izan zan sua izetuteko arrazoia baina instituzinoak hasi dira urtenbideak topetan. Uraren Euskal Agentzia be badago gertautakoa ikertzen. Izan be, 50 tona plastiko, 4.000 litro gasoil, 50 auto eta amianto erre ostean, sustantzia toxikoak heldu ziran errekarara.

Saioa Elejabarrieta alkateak

BEGITU azaldu deusanez, etxea galdu eta lehen egunak ostatuan pasau ebezan auzotarrak Arratiako larrialdietarako etxebizitzetan kokatu dabez. Arazoa, etxebizitzetako batzuk baimen bakoak zirala da, baina Elejabarrietak argi adierazo dau: "Guretzako ezer barik gelditu diran personak dira". Garrantzitsuena herritarrentzako urtenbidea topetea dala azaldu dau, eta "gero gerokoak", aseguru eta abogaduakaz egin beharreko kudeaketen inguruan.



Abuztuaren 23tik 30era egongo da Areatza jaietan

Eguerdiko 14:00etan botako dabe Areatzako udaletxetik jaiei hasikerea emoteko txupina. Aurten, Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteko kideei emon deusie txupinazoa botateko ardurea Jai Batzordekoek.

Erredakzinoa

Lehenengo egun bietan, musikeagaz beteko ditue billaroztarrek kaleak. Urtero lez, Areatzako Banda, Bizkaiko Gaiteroak eta txistulariak urtengo dira txotxongilo, erraldoi eta buruhandiakaz batera. Eguenean barriz, Tortilla Txapelketea eta afari herrikoia inguruan mobiduko da jaia.

Astegoienean ostera, gaueko giroa kontzertuek berotuko dabe. Barikuan Radiocrimen eta GBH egongo dira; Birmingham-etik etorritako hardcore punk musikearen aitzindaria, lehen diskoaren 40. urteurreneko birea egiten dabilana. Zapatuan ostera, Danborrada Txikia eta nagusia urtengo dira eta kontzertuei jagokonez, Nikotina rap abeslea eta Dj Martin Seлектah egongo dira gauean. Domekan be, Los Trogloditas taldea eguerdian eta *Sorotan Bele Gogoan* emonaldia egongo dira gauean, Areatzako Bandagaz.

Atzen egun bietan, umeentzako ekintzak egongo dira: puzgarriak, bits jaia eta playback-ak. Nagusiek be izango dabe zer egin, astelehenean Tute eta Makailao Txapelketak jokatuko dira eta martitzenean, musa.

Abuztuak 23, martitzena

14:00etan, txupinazoa. Areatzako txotxongilo, erraldoi eta buruhandiak, Areatzako txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak. 18:00etan, Matraка elektrotxarangea. 20:00etan, Salbe Herrikoia. Hilarion Eslavaren *Salve Regina*. Areatza eta beste herrietako lagun taldea. 22:00etan, erromeria Altza Porru taldeagaz. 23:30ean, XXVII. Playback Lehiaketea eta jarraian erromeria Altza Porru taldeagaz.

Abuztuak 24, eguaztena

06:00etan, mortero jaurtiketea. 11:30ean, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. 12:00etan, meza nagusia. 12:45ean, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. 13:00etan, herri kirolak plazan. 14:00etan, kalejireia Arratiako Eingo eskolako trikitilariakaz. 17:45ean, eskupeleta partiduak. 22:00etan, Dj Feli.

02:30ean, txokolate jana.

Abuztuak 25, eguena

11:30ean, arimen aldeko mezea. 13:00etan, hirugarren adinekoentzako kopaua. 16:00etan, Briska Txapelketea. 20:00etan, Tortilla Txapelketea (aurkezpena). 21:30ean, afari herrikoia. Jarraian Dj Mariskal.

Abuztuak 26, barikua

13:45etik 14:30era, Paella Lehiaketea (aurkezpena). 20:00etan, Burrunba elektrotxarangea. 24:00etan, kontzertuak: Radiocrimen eta GBH taldeak.

Abuztuak 27, zapatua

18:00etan, Danborrada Txikiaren kalejireia. 22:30ean, kuadrillen kalejireia eta suak. Areatzako kuadrillak, Areatzako Danborrada, su artifizialak eta Pasai txarangea. 00:00etan, Nikotina taldea. 02:00etan, Areatzako Danborradaren bigarren bueltea. Ostean, Dj Martin Seлектah.



Abuztuak 28, domekea

13:00etan, Los Trogloditas taldea Zubizarran. Loquilloren banda ohia. 14:00etan, Durundue batukadearen kalejireia. 14:00etan, tabernen arteko Pintxo Lehiaketea. 18:00etan, eskupeleta partiduak. 21:30ean, Areatzako Banda: *Sorotan Bele Gogoan*.

Abuztuak 29, astelehena

11:00etan, umeentzako puzgarriak. 14:00etan, Makailao Txapelketea (aurkezpena). 17:00etan, Tute Txapelketea. 20:00etan, Zirkozaurre konpainiaren *Kobr3* ikuskizuna.

Abuztuak 30, martitzena

12:00etan, bits jaia. 16:00etan, Mus Txapelketea. 17:00etan, umeen playbacka. 22:00etan, Mariachi Dominguez taldea. Jaien agurra.



Jai batzordeak eta Areatzako Udalak jai zoriontsuak opa deusuez

Ondo pasau jaietan!

AMELIA TIGANUS

"Prostituzinoa deslegitimau behar da eta horretarako tresna juridikoak behar doguz"

Noka talde feministek eta Arantzazuko Udalak prostituzinoaren gaineko berbaldi bi antolatu ebazan prostituzinoaren eztabaidearen alde bietako hizlariakaz. Aprilaren 27an, Carolina Clemente egon zan sexu langileen eskubideak defendiduten, eta bagilaren 17an, Amelia Tiganus abolizionismoaren alde. Tiganusek, *Indarkeria sexual, pornografia eta prostituzinoaren arteko konexinoak. Sexualidade osasuntsu bat biziteko proposamen etikoa* izeneko berbaldian, prostituzinoa indarkeria sexuala dala eta pornografia, bere marketina, esan eban. Eta abolizionismoak prostituzinoaren instituzinoa deslegitimetea bilatzen dauala eta horretarako tresna juridikoak behar dirala.



Amelia Tiganus.

Erredakzinoa

Amelia Tiganus, Galatin (Errumania) jaio zan eta EAEn bizi da. Kazetaritza eta Publizitatea eta Harreman Publikoak gradu biko-txa ikasten dago Udiman. Hainbat sari eta aitamen jaso ditu andren eta nesken giza eskubideen alde egindako lanagaitik, eta Emargi alkartearen sortzailea da. Alkarte horrek sexu eta ugalketa esplota-zinotik libre egongo dan etorkizunaren alde egiten dau burrukan. *La revuelta de las putas* saiakerea eta Roberto Garcia eta Alicia Palmerregaz batera *Amelia. Historia de una lucha* komikia idatzi ditu.

Rosa Cobo ikertzaileari jarraituz, globalizazioak eta mobimentu neoliberalak, gorputza merkaduan ipini dabela dino. Andren gorputza, batez be, bere sexu eta ugalketa kapazidadeagaitik, hain zuzen be; pornografia, prostituzinoa eta alokairuko uteroak baliatuz gorputzaren merkantilizazinorako.

Espainiako estaduan, 10 gizonetatik 4k onartzen dabe ordaindu egin dabela praktika sexualakaitik.

Pornografia

Pornografia prostituzinoaren mar- ketin lez definidu eban Tiganusek. Grabautako prostituzinoa dala por- nografia eta eskaerea sortzeako balio dauala esan eban. "1970eko hamarkadan, multinazional bihur- tzen hasi zan, mugak gainditzen dituan aisialdi kriminala. Lehe- nago be baegoan pornografia, baina ez eukan zerikusirik oingo industria handiagaz". Edukiari jagokonean be desbardina zan, ikertzaileen arabera. Lehen kon- takizun erotikoa zan pornografia, eta fantasia sortzean ixten eban. "Baina oin, irudiakaz bonbardee- tan gaitue eta masturbetako edo sexu-harremanak izateko orduan, ezin dogu fantasiarik sortu, gogo- ratuten doguna irudi pornogra- fikoak diralako. Sormena eta sexu askatasuna mugatzen deuskue" dino Tiganusek.

Irudi pornografiko honeek, gero eta gordinagoak dira, torturaraino ailegauz askotan. Hasikeran, pros- tituzinoan egozan andrak hartuten ebezan pelikulok grabetako. Es- tadu Batuetan sortu eta, ostean,

mundu osoan zabaldu zan. Baina merkaduan dagoan edozein pro- duktuk moduan, eskaintzea aldatu behar dau eskaerea mantenu- du eta handituteko. Hori dala-ta, iru- dietako indarkeria eta bortxa gero eta handiagoa egiten joan zan, in- darkeria sexualidade bihurtuz. Ho- rixe azalduten dau Monica Alariok, bere doktorego tesian oinarritutako *Política sexual de la pornografía* li- buruan: atzenaldian konsumiduten dan pronografiaren edukia, gero eta urrunago dagoala eduki sexua-

Abolidutea bitartekoa da, eta prostituzinoa desagertu arazotea, helburua. Prostituzinoa deslegitimau behar da eta horretarako tresna juridikoak behar doguz

la izatetik eta, gizonak masturbau daitezkan, tortura erakusten dauala.

Prostituzinoa

Espainia, Europako prostituzino konsumitzaile handiena da eta munduko hirugarrena, Thailan- diaren eta Puerto Ricoren ondo- ren. Egunean 5 miloi euro mo- biduten ditu eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) parte dira.

Eta prostituzino sistemeak be- har dituan putak fabrikau egin behar dira. "Sexu indarkeria- ren bidez sortzean dira, gizarte osoaren onespengaz, andrak bazterretara botaz". Eta hori estadiuek egiten dabe posible. "Hemen, prostituzinoa aisialdi eta dibersinotzat hartzean da. Ez da legezkoa eta ez da legez kan- pooka, alegala da. Eta proxenetak dira babestuenak".

Proxenetek jagokienean, errela- tu sozialak, estereotipo oker bat errepetiduten dau; horren arabera, proxenetak, kanpokoak dira: erru- maniarrak, nigeriarak, kolonbia- rrak... baina hori ez da holan; izan be, proxeneta handiak autoktonoak dira. Mabel Lozanoren *El proxeneta* izeneko dokumental eta liburuan argi geratzen da hori. Proxeneta bat kondenau eben 1.700 andra baino gehiago sexualki esplote- teagaitik eta liburuak kontetan dau proxenetismo sare hori zelan sortu eben eta jatorrizkoak dirala prosti- tuzinoaren jaube handiak.

"Eta gero, puteroak dagoz. Nik ez deutset bezero deitzean, uste dodalako ez dagoala ondo modu berean deitzea ogia edo egunka- ria erosten dauan gizon bateri eta andra baten barruan edo gainean eiakuleteagatik ordaintzen dauan gizonari. Prostituzinoan, sexua gura dauan gizon bat, eta sexurik gura ez baina dirua behar dauan andra bat dagoz. Prostituzinotik kanpo, zelan deituko geunskio horri? Sexurik gura ez dauan andra bategaz sexu- harremanak izateari? Bortxaketea, sexu-abusua, sexu-erasoa".

Oin neska gaztetxoei, prostituta izateak ahaldundu egiten dauala eta apurtzailea dala sinistu arazo

gura deutsee. Baina ez da holan. 1980ko hamarkadan, prostituzi- noan jarduten eben andrak, he- roinazaleak ziran, droga erosteko dirua behar ebenak; 2000ko hamarkadan, hegoalde globaleko andra pobreak izaten ziran gehie- nak, produktu exotiko lez, eskain- tzen zana. "Gazteak eta itxuraz osasuntsuak, psikologikoki hon- datuta egon arren. Proxenetek kokaina eta alkohola eskaintzen eutseen neska honeei eta gehie- nek hartu egiten eben, egoerea eroan ahal izateko. Pornografia egitea be eskaintzen jakien". Oin, bertako neskak, "Kilometro 0", da prostituzinoaren konsumitzaileek eskatzen dabena.

Neska horreengana sare sozia- len bitartez ailegetan dirala azaldu eban Tiganusek. "Aplikazio bat dago edukiak sortzeako, edozein eduki ipini daiteke diru bat iraba- ziz. Neskatiak erakarten ditue, eta eduki erotikoa sortzea eskaintzen jakie. 12, 13 eta 14 urteko neska- tiak jausten dira sare kriminal ho- rreetan. Eduki erotikoa eta porno- grafikoa sortzean dabe, pornografia webguneetan amaituten dauana. Forocochesen eta Telegrameko antzeko foroetan, presinoa egiteko antolatuten dira, baina presinoa ez deutsee egiten mehatxua erabiliz, lausenguak eginez baino. Gainera diru bat be jasoten dabe neskek. Ho- lan, neskei sozialki esaten deutsegu, erakargarriak diran neurrian, gizonen desioa biztuten dabene, eta, gizarte kapitalista honetan, daukienaren arabera balio dabela". Gizarteak prostituzinoa banalizau eta gazte- txoak arriskuan ipinten dituala esan eban hizlariak.

Abolizionismoa

Honeri aurre egiteko hiru eredu dagoz. Bata, prostituzinoa galazo- ten dauan eredu da, Tiganusen ustetan, askotan abolizionismoa- gaz nahastu egiten dana. Eredu honek bilatzen dauana da prosti- tuzinoa ostondutea eta prostituzi- noaren partaide guztiak zigortzen ditu. Ekialdeko European, Erruma- nian, esaterako dago indarrean.

Honegaz batera, eta historian zehar tartekatzen, eredu arautzailea dago. "Eredu honek izen asko ditu, eskubideen aldekoa, tartean, baina indarrean dagoan lekuetan, andren egoera ez da hobetu, okertu baino. Proxeneten egoera da hobetu dana, enpresari errespetagarriak izatera pasauz". Herbeheretan, Alemanian edo Zelanda Barrian dagoana da.

Hirugarren eredu abolizionismoa da. Tiganusen arabera, andren giza eskubideak erdigunean ipiniz, hiru gauza eskatuten ditue. Lehenengoa, prostituzioan dagoan andrak ez zigortzea eta prebentziorako eta erreparaziorako politika publikoak sortzea. "Laguntza ekonomikoa, baina

baita etxebizitza, formakuntza, terapia, aholkularitza juridikoa, paterak, lana... hau da, eskubideak".

Abolizionismoak eskatzen dauan bigarren gauzea, proxenetismo era guztiak zigortzea da, Kode Penalak aplikauz. Eta atzenik, formazioa be eskatuten dabe, politikari, kazetari, abogadu eta jente guztiarentzat.

Abolidutea ez dala kentzea dino Tiganusek. "Abolidutea bitartekoa da, eta prostituzioa desagertu arazotea, helburua. Prostituzioa deslegitimu behar da eta horretarako tresna juridikoak behar doguz". Suedia da eredu hau indarrean daukan herrialdeetako bat eta bertan gizonen %8k baino ez dabe prostituzinora jotzen.



2022

IGORREKO UDEKO JAIEK

ABUZTUAK 12, 13 ETA 14
18:00 Futboleko
XXXIV. Igorreko Saria

ABUZTUAK 15
ANDRA MARI EGUNA

12:30 Mezea

13:00 Luntxe goiko plazan

17:00 Briska txapelketea
Bidebarriko plazan

17:30 Igel txapelketea
Bidebarriko plazan

19:00 Txokolatea
Bidebarriko plazan

20:00 Ut! taldea
Bidebarriko plazan

IGORRE
Donon herria
Donon dukera

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Berriro dago jartzen

- Salmentan zein aldatu
- Luntak (erakutsi, lantak, basak...)
- Etxebizitza (pisuak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lantak komertzialak
- Publizitateak
- Balonak

Berriro dago proiektatzen

- Irakurri berriak erakitzeko
- Etxebizitza
- Arkitekto-proiektuak
- Lantak diseinatu
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko
- Kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Kili-Kili

Lehendakari Agneta 10 - IGORRE (Bizkaia)

Tel: 94 673 43 81

ASESORÍA
Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanak - Kontabilitate

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza

Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82

E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olafxe

Graduazioak

Ikusmen terapia

Ikusmen gubitua

Begiko tentsioa

Lentillen adaptazioa

Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

Tel: 94 657 70 03 - olafxeoptika@hotmail.es

LASTO JASOTZE

Beñat Amade da Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelduna

Gargarrilaren 2an, Diman jokatu zan txapelketan Jon Loiolari irabazita lortu eban titulua getxoztarrak.

Erredakzinoa

Herri kirolen jardunaldi oparoa izan zan Dimako jaietan ospatu-takoa. Lasto altxatzea, trontzea, in-gudea, azkorea eta zaku eroatea egon ziran ikusgai frontoian. Atzen hirurak erakustaldiak izan baziran be, egon zan lehiaketa ofizialetarako denporea. Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea jokatu eben Beñat Amadek eta Jon Loio-la dimoztarrak. Gero, Promozino mailako Bizkaiko Gizonezkoen Trontza Txapelketako bigarren jardunaldia egon zan jokoan, hiru bikoteren artean.

Promozino Mailako Trontza Txapelketako bigarren jardunaldia be jokatu zan, Salvador Erleaga eta Oier Ibergallartuk osotutako bikotea urten zan garaile.

Lasto jasotzean, Amadek egin ebazan 45 kiloko fardoaren ja-soaldi gehien, 21, minutu bitan. Loiola barriz, atzean gelditu zan

19 jasoaldi eginda. Atzen urteko irabazleak, Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak ezin izan eban parte hartu, lesino bat medio.

Trontzan, 54 hazbeteko enborra-ri hamar eta 45ekoari hiru zati egi-tea izan zan probea. Beharrean ari-nena izan zan Erleaga-Ibergallartu bikotea, 7 minutu eta 26 segundotan bete eben probea. Atzetik, bost segundoko alde estuagaz amaitu eben Agirre eta Osak eta atzenak izan ziran Erleaga eta Arrien.



PELOTEA

Udako Torneoko liderrak dira Aldai eta Capellan

Ligaxka fasearen partidu biak irabazi ditue eta kanporaketen aurretik, abuztuaren 3an jokatu dabe ligaxkako atzen partidua Bastidan, Garai eta Erasunen kontra 19:30ean.

Erredakzinoa

Amaia Aldai eta Andrea Capellan batera eta bide onetik dabiz La-boral Kutxaren Udako Torneotan. Partidu bi jokatu diranean, ligaxka faseko liderrak dira Etxegarai-Ga-minderen kontra 22-21, eta Arri-zabalaga-Zabalaren aurka 22-13 irabazita. "Capellan eta biok paper ona egin dogu, egia da atzenal-dian alkarregaz askotan egokitu jakula eta horrek txapelketetarako konplizidade maila hobetzen la-guntzen dau", azaldu dau Aldaik.

Ligaxka faseko atzen partidua abuztuaren 3an jokatu ostean ebatziko dira finalaurrekoetako bikote parte hartzaileak. Hurrengo

pausu hori lortzeako gogoz dago Aldai atzen partiduaren ostean: "Uste dot San Fermineko finaletik hona bueltea emon deutsadala. Oin barriro disfrutetan nabil eta biok gogoz maila polit batean".

Finalistak Gasteizen

Aldai eta Capellan bigarren txapelketa batean dabiz batera jokatzen, Emakumezkoen Gasteizko II. Pelota Masterrean. Finalaurrekoa garagarrilaren 25ean jokatu eben Arrizabalaga eta Erasunen aurka. 22-15 irabazi ostean finalerako sailkatu dira dimoztarra eta bikotea. Hau abuztuaren 7an jokatu da, Foru Plazako frontoian 11:30ean

TXIRRINDULARITZEA

Leire Aurrekoetxea: "Jenteak ilusino handiagaz hartu eban San Kristobaleko lasterketea berreskuratzea"

Garagarrilaren 9an jokatu zan 42 urte bete dauzan Igorreko Sari Nagusia. Arratiako Ziklista Elkartek jaietako urteroko lasterketea antolatu ezin izan ebalako, atzeratu eta San Kristobal izan da oingoan helmugea.

Erredakzinoa

XLII. Igorreko Sari Nagusian 53 txirrindularik hartu eben parte, Kadete Mailakoak. Igorretik Zea-nurira, eta bueltan San Kristobal auzorako bidean 61 kilometro egin ebezan guztira. Murias Arra-tia taldetik, lau izan ziran parte-hartzaileak: Igorreko Markel Ealo, Dimako Txaber Lazpita, Lemoako Aimar Elorriaga eta Arteako Oi-han Agirre. Atzen hau izan zan arratziarren arteko lehena. Seiga-rren postuan heldu zan Agirre helmugara, lehenengoa izan zan Dani Heras baino hamabi segun-do beranduago.

Leire Aurrekoetxea AZEko pre-sidenteak lasterketearen balora-zino "benetan be ona" egin dau BEGIRUN: "Tourreko etapa baten moduan, igokeran pilo bat jente egoan oinez animetan. Oso sensa-zino polita". Beste alde batetik, ga-

ragarrilean 65 boluntario batzeako ahalmenaren garrantzia azpimarra-tu dau Aurrekoetxeak, "hau ez da leku askotan pasatzen". Honeei eta San Kristobaleko auzotarrei eskerrak emon gura izan deutzaz, lasterketak antolatzen jarraitzeko segurtasuna emon dabelako.

Hurrengo urtean lasterketea San

Kristobalen errepetiduteko gogoa-gaz batera, AZE beste proiektu batzuetan pentsetan dabilela au-rreratu dau presidentek: nesken lasterketea eta jubenilek be parte-hartzea, besteak beste. Halanda be, lan handiko urtea daukie aurre-tik, izan be, Tour Eguna ospatuko da Igorren 2023ko bagilean.



FUTBOLA

Mirandeseko prestatzaile fisikoa izango da Luis Prieto

Miranda de Ebroko futbol taldeak Dimako futbolari ohia aukeratu dau jokalarien egoera fisikoa zaintzeako. Beraz, datorren denporaldian lehen taldeko entrenatzailea dan Joseba Etxeberriagaz bueltauko da lanera.

Erredakzinoa

Garagarrilaren 1ean jakinarazo eban CD Mirandes taldeak pres-tatzaile fisikoa aldatuko ebala. Ho-lan, Luis Prieto Athleticen jokalaria Pablo Gomez ordezkatzuko dau 2022/23 denporaldian. BE-GIRURI egindako adierazpenetan poz-pozik agertu da Prieto: "Urte bete egon naz geldi eta faltan bota dot zelaietan egotea".

Beraz, Espainiako futbol ligako Bigarren Mailan egongo da oindik aurrera, eta hor eustea da, Prietoren esanetan, helburua. Denporaldia oso gogorra izango dala azpima-ratu dau, "talde oso indartsuak"

dagozala-ta, "ez da partidu errazik egongo". Momentuz, taldea ez dago guztiz zarratuta baina hasi dira daborduko beharrean, lehen talde-jokalaria eta filialeko batzuek.

Denporaldi hau konpainia be-reziagaz egingo dau gainera, izan be, "Etxebe" da taldeko entre-natzailea. San Mamesen batera jokatu bakarrik ez, Lezaman be izan dira kide atzen urteetan. "Beragaz joatea opatu eustanean ez neban inolako dudarik euki proiektuaren parte izateagaz", azaldu dau Prietok.

Ibilbide profesional luzea

Bere ibilbidea Arratiako taldean



Luis Prieto.

hasi eban Luis Prieto dimoztarra 2002tik 2008ra egon zan Athle-ticeko lehen taldean. Aurretik be, Eibarregaz batera Bigarren Mailan jokaturakoa da. Athleticen bere parte-hartzea bajatzerakoan Va-lladolidera joan zan, beste den-poraldi bi egiteko. Ponferradina eta Alavesen beste denporaldi bana jokatu ostean hartu eban erretiroa, jokalaria moduan gitxie-nez. Izan be, 2014tik 2020ra egon da Lezamako harrobiko prestatzaile fisiko lez. 2020-21 denporaldia ostera, Leioan egin eban entrenatzaile lez.

MENDIA

Urri lehengoaren 2an amaituko da Ubidestroï Trail mendi lasterketan izena emoteko epea

Ubideko lehenengo mendi lasterketea urri lehengoaren 10ean jokatu da eta antolatzaileek dorsala lortzeako denporea luzatzea ebatzi dabe.

Erredakzioa

Lasterketeaz gain, badabiz honen inguruko egitarauari be formea emoten; aurkezpen ekitaldiak, berbaldiak, puzgarriak eta erromeriak biribilduko dabe Ubidestroï Trail.

Ubiden hasi eta amaituko da urri lehenengoan jokatu dan Ubidestroï Trailen lehenengo edizioa. 27,5 kilometro eta 1.700 metroko desnibeleko ibilbidea gainditu beharko dabe korrikalariak Oketa, Gorbeia, Saldropo, Bastelarra eta Eneabetik pasauta. Parte hartzeako, www.kronoak.com webgunean emon daiteke izena urri lehenengoaren 2ra arte. Antolatzaileek azaldu dabeenez, gehienez be, 400 korrikalari-erentzako lasterketea izango da: "Gurean ondo etorriak izango

dira munduko txapeldunak eta helmugara justu helduko diran korrikalariak. Guztientzako lekua dago Ubidestroï".

Lasterketearen barri emon ebe-nean, honen inguruan bestelako ekintzak egingo zirala aurretatu eben antolatzaileek eta hasi dira daborduko egitaraua iragarten. Hasteko, lasterketa aurreko egunean honen aurkezpena egingo da eta jarraian euskal korrikalari ezagunak egongo dira Unai Ugartemendia kazetariak gidatuko dauan *Eliteko kirola osasuntsua al da?* izeneko mahai-inguruan: Oihana Azkorbebeitia, Jokin Lizeaga, Andoni Ormazabal eta Lide Gorostiola. Horrezaz gain, lasterketa egunean bertan herria girotzeko ekintzak be proposatu dabez. Momentuz, umeentzako puzgarriak eta erromeria egongo dira.

MENDIA

Jokin Zabalak zidarra lortu eban Bilboko mendi maratoi erdian

Erredakzioa

Bilbao Mountain Marathon-en bigarren edizinoan, bigarren postua lortu eban Bediaiko korrikalariak, 21 kilometroko lasterketan.

Garagarriaren 2an jokatu zan Bilbon, Errekalden hasi eta amaituta, II. Bilbao Mountain Marathon lasterketea. Jokin Zabala bediaztar-rrak maratoi erdiko lasterketan hartu eban parte, 21 kilometro eta ia 1.000 metroko desnibeldun ibilbidean. Helmugara bigarren heldu zan Zabala, 01:49:50ko denporeagaz. BEGITU azaldu deusanez, lasterketako lehen zatia oso arina izan zan, "hasikeratik definidu zan lehenengo bostak nortzuk izango ginan".

Honen aurretik, urrea Marc Vizcainok lortu eban, zazpi minutuko aldeagaz. Zabalak azaldu dauanez, ibilbide erdiko aldasbeheran lortu eban aldea ateratea. Hirugarrena barriz, Jon Betolaza, Zabalgaz lehian egon zan helmugara heldu arte, hamar segun-

doko alde estuagaz amaitu eban lasterketea. "Beherantza berak hartzean eban aurrea, baina atzen igoeran aldea atera eta lasaiago hartu neban helmugarako bidea", adierazo eban Zabalak.

Udan be galapan

Abuztuan lasterketa bi egitekotan dago Jokin Zabala, biak Pirinioetan, urrietako "etxeko" lasterketarako prestatzeko helburuagaz. Batetik, Oroeleko igoerea egingo dau hilaren 7an. Bestetik, hilaren 21ean Linas de Brotoko kilometro bertikala jokatu dau.



MENDIA

Bigarrena izan da Onditz Iturbe Comapedrosako Skyrace-an

Andorran jokatu zan lasterketako 24 kilometroak 3 ordu, 51 minutu eta 4 segundotan egin ebazan korrikalari igorreztarrek.



Onditz Iturbe, Lindsay Webster eta Iris Pessey.

Erredakzioa

Garagarriaren 31n jokatu zan Comapedrosako Skyrace-a eta barriro be, Onditz Iturbek podiuma zapaldu eban, zidarrezko

dominagaz. Comapedrosa mendian inguruan, 24 kilometro eta 2.375 metroko desnibeleko ibilbidean jokatu zan Munduko Kopako, Skyrunner World Series 2022, zortzigarren lasterketea

eta korrikalari igorreztarra txapelketako liderra dan Lindsay Webster baino bederatzi minutu beranduago ailegau zan helmugara. Iturbe eta Websterren ostetik, Iris Pessey frantziarra izan zan hirugarrena, minutu bateko alde estuagaz.

Europako Off Road Txapelketea

Garagarriko lehen astegoienean El Pason (La Palman) jokatu zan Europako Off Road Txapelketea, Iturbe korrikalari igorreztarren parte hartzeagaz. Hiru probatik bi egin ebazan Iturbek: kilometro bertikala eta Up&Down klasikoa. Lehenengoan hamaikagarrena izan zan eta zortzigarren hurrengo lasterketan. Dominarik lortu barik be, egindakoagaz pozik agertu zan eta Espainiar Estaduko azkarrena izaten jarraitzen dau: "Lasterketa biak osorik amaitu dodaz eta emaitza aldetik be polito. Esperientzia aberasgarria izan da Europa mailako onenakaz lehiatzea".

AZKOREA

Aitzol Atutxak ez dau Euskal Herriko Federazinoaren Txapelketa Nagusia jokatu


Erredakzioa

Ezpal alkarteko hemeretzi azkolariek federazinoari bizkarra emon eta aurten be euren txapelketa propioa antolatuko dabe. Ebatzi hau, federazinoak atzen txapelketan aurkeztu ez ziran kirolariei Hirugarren Mailatik hastera behartu ostean hartu dabe. Akordiorik lortu ezean, "Ezpalek bere bidea egiten" jarraituko dauala azaldu dau Atutxak BEGITU.

2020an gauzatu zan Euskal Herriko Federazinoaren eta Lehen Mailako azkolarien arteko harremanen apurketea, Txapelketa Nagusiaren inguruan. Orduan, federazinoak txapelketea antolatuko ez ebala jakinarazo eban eta kirolarien proposamena izan zan txapelketea euren kabuz antolatzeari. Federazinoak ez eban hau onartu baina azkolariek aurrera

egin eben. Txapelketarako hilebete falta zanean, kirolariak komunikabideen bitartez jakin eben baietz, federazinoaren txapelketea jokatu zala. Halanda be, "atzen orduan eta modu desegokian" antolatuta egoala argudiatuta, parte hartzeari uko egin eutseen.

Holan, Lehen Mailako azkolaria guztiek, hamabi, eta Bigarren Mailako zazpi Ezpal sortu eben, Euskal Herriko Aizkolarien Elkarte. Sherpa.ai enpresek babestuta antolatu eta jokatu eben txapelketea. Aurten, federazinoak eta Ezpalek akordio bat lortzeako negozi-azinoak egin dabez, baina ez da adostasunik egon. Izan be, Ezpaleko kirolariak Hirugarren Mailatik hasi behar dirala ebatzi dau federazinoak. Hau da, 2020ko eliteko azkolariek Lehen Mailara bueltatzeko, gitxienez lau urte beharko ebezan. Aitzol AtutxaK azaldu dau



Aitzol Atutxa.

Txapelketa Nagusira bueltatzeko baldintza minimoa bakotxaren maila errespetatzea dala. Horretarako, "estruturazino barria egiteko kanporaketa orokor bat" egitea da Ezpalen proposamena.

Urrezko Kopa

Garagarriaren 16an Urrezko Koparako saillapen saioa jokatu eben Donostian Aitzol Atutxak eta beste hamaika azkolarik. Abuztuaren 15eko finalerako bost pase egozan jokoan eta dimoztarrek lortu eban horreetako bat, probea bigarren postuan amaitu ostean. Zazpi kanaerdikoak 14 minutu eta 49 segundotan zatitu ebazan. Beraz, hilaren 15ean finala jokatu dau Mikel Larrañaga, Iker Vicente, Julen Alberdi "Txikia IV." eta Hodei Ezpeleta "Bihurri"ren kontra.

MEMORIA HISTORIKOA

Martxan dago Lemoako Memoria Historikoa artearen bidez gorpuzteko lehiaketea

Lemoako Udalak eta EHuko Arte Ederren Fakultadeak antolatu dabe "Oroitzeak dakarren askatasunaz" lehiaketea. Gerra Zibila, honen giza dimensinoa eta diktadurea abiapuntu lez hartuta, orduko andra, gizon eta umeen bizipenak gaurkora ekarri eta berauei egiazko aitortza justua egiteko helburua izango dau proiektuak.

Erredakzinoa

2017/2018 ikasturtetik aurrera Arte Ederren Fakultadean ikasketak amaitu dabezan ikasleek, datorren ikasturtean bertan matrikulauta egongo diranek eta edozein garaitan, Arte Ederren Fakultadean ikasketak egin dabean lemoaztarrek izango dabe "Oroitzeak dakarren askatasunaz" lehiaketan parte hartzeako aukerea. Erronkea, Lemoako Memoria Historikoan oinarritutako proiektu artistikoak garatzea da, banaka edo taldeka, eta euskeraz.

Artelanaren formea librea izango da, iraunkorra zein ez-iraunkorra. Baina hasteko, urri lehenengoaren 26a muga lez hartuta, portfolio formatuan proiektuaren dokumentazio grafikoa, ikasketak egiaztatzen dauzan dokumentazioa eta curriculuma aurkeztu beharko dira fakultateko Hedapenerako Dekanotzan edo ecultural.bellasartes@ehu.eus helbidean.

Arte Ederren Fakultateko irakasle bik eta Lemoako Udaleko ordezkari bik, aurkeztutako proiektuen artean hiru aukeratu ditue eta bakotxak 800 euro jasoko dauz artelana garatzeko. Honek 2023ko urtailean aurkeztu beharko dabe gauzatu-tako proiektua Lemoan eta atze-nean, epaimahaiak ebartziko dau irabazle bakarra. Honek, 2.500 euroko dirulaguntzea jasoko dau proiektua burutu eta maiatzeko Memoria Astean lemoaztarrei egindakoa aurkezteko.

Lemoa erdigunean
Lehiaketearen helburua "artearen ikuspuntutik herriaren

PROIEKTU ARTISTIKOEN DEIALDIA

"OROITZEAK DAKARREN ASKATASUNAZ"



GAIA

- Lemoako memoria historikoa artearen ikuspuntutik.

PROZEDURA

- Hiru proiektu dira legeduko dira (2004, 2005).
- Proiektu horietatik bat hautatuko da herriaren garrantzia, eta diru gehiago legeduko da (2.500€).

PARTE-HARTZAILEAK

- 2022/2023 ikasturteko UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleak.
- 2017/18 ikasturteko aurrera Arte Ederren Fakultatean ikasketak amaitu dituztenak.
- Arte Ederren Fakultatean ikasketak burutu dituzten lemoaztarrek.

DENBORALIZAZIOA

- Irailik 26. proiektu garrantzitsua aurkeztu.
- Irailik 3. hiru proiektu aurkeztu.
- Urriaren 26. proiektu bakarra aurkeztu.
- Maiatz: proiektu herriari aurkeztu.

INFO +

- www.lemoa.net



testuinguruan sakontzea" dala azaldu dabe antolatzaileek. Holan, beharrezkoa da parte hartzaileek herriaren nahiak buztartzea, bakotxaren ikuspegitik. Herriagaz loturea egin eta artelana testuinguruan kokatzeko garrantzia handikoa izango da lekua. Horregaitik, lehen hiru proiektuen egileak Lemoako Udalagaz kontaktuan egongo dira, artelanak egileak aukeratu-tako lekuan kokatu edo garatzeko.

ZIRKUA

Zirkozaurre konpainiak *Kobr3* taularatuko dau Areatzako jaietan

Abuztuaren 29an, astelehena, egongo da ikusgai 20:00etan esku joko teknikak, objektuen manipulazioa, cyr gorpila, bertikala eta mobimentua konbinatzen dauzan ikuskizun "plastiko eta geometrikoa".

Erredakzinoa

Kobr3 zirku garaikideko ikuskizun bat da, Pablo Caceres, Gorka Pereira eta Imanol Susok "plastikotasun geometriko handiz eta koreografia harmonikoen bitartez" taularatzen dabena, Zirkozaurre konpainiaren esanetan. Holan, kobrea gidari gisa daukan istorio bat sortu dabe hiru malabaristek: "Kobrea, hain gertu eta hain ezezaguna. Hain garrantzitsua eta halanda be hain diskretua. Haize bako metal bat, urrearen itzalean bizi dana. Harritzen gaituana, gure arreta erakarten dauana. Korrontea eta beroa eraginkortasunez eta zehaztasunez gidatzen dauzana. Moldagarria. Mugabako birziklapeneko. Konprometidua. Femeninoa. Askotan magikoa. Sendagarria. Elikagaietan, txanponetan, teknologia barrietan

ageria... Denporearen joanean inork ez bezala egokitzen jakin dauana. Kobre inspiratzailea, gure ikuskizun barriaren gidaria".

Haztegiko malabaristak
Caceres, Pereira eta Suso oin dala lau urte hasi ziran alkarlanean, Haztegia 2018 programarako aukeratuak izan ziranean. Progra-

ma hau Zirkozaurre konpainiak berak bultzatzen dau, instituzioen dirulaguntzeagaz sortzaile, artista eta zirku proiektu profesionalen sustatzaileei euren bidea egiten laguntzeko. Bertan, Nueveuno konpainiako Jorge Silvestrek gidatu-tako malabare eta mobimentuen laborategian hartu eben parte.



AUZOLANDEGIA

Lemoatxako lubakiak berreskuratzen dabiz hogeitaz gazte hileon

Auzolandegia programako gazteak zortzi kanpaina egin ditue daborduko eta Memoria Historikoa berreskuratze-ko helburuagaz bueltau dira Lemoara.

Erredakzinoa

Abuztuaren 1ean heldu dira Auzolandegia programako parte hartzaileak Arratiara eta Lemoan egongo dira hilaren 15era arte. Egun honeetan Lemoatxan pasauko dabez goizak, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzeagaz Gerra Zibileko lubakietan behar boluntarioa egiten.

Bertan, aurreko urteetan egin-dako berreskurapen prozesuagaz segiduko dabe, 1937 urteko burruka hareetan gertatu-takoa hobeto ulertzen jarraitzeko. Horretarako lubakiak garbitu eta zaku barriak ipinita egokitu ditue, Aranzadigaz batera indusketa eta ikerketa lanakaz jarraitu bitartean. Halanda be,

ez dira lan egiteko bakarrik etorri eta arrasti eta astegoi- enetan hainbat ekintza egingo ditue, inguruetatik batzuk.

85 urte

1937ko maiatzaren 29an hasi eben faxistek Lemoatx okupatze-ko burrukea, oin dala 85 urte. Ba-



gilaren 5ean lortu eben helburua, mila hildako baino gehiagoren ostean. Baina diktadura luze eta osteko urteetan ez zan Memoria Historikoa lantzeako baldintzarik egon. Lemoan, 2011n sortu zan Lemoatxen gertatu-takoa berreskuratze-ko batzordea lanean eta hainbat izan dira ordutik gaur arte aurrera eroan dabezan ekimenak: *Lemoatx 1937 Euskal Gudareostearen azken garaipena* liburua, lubakien berreskurapena, *Lemoako memoria* dokumentala, *Memorian gordeak* abestia eta Lemoatx 1937 museoa besteak beste. Gainera, Ernaik tontorre-ko kurutze frankistea bota eban 2021eko urrietan, eta Udalak gazteen pausuak jarraitu ebazan, kurutze-bidea be kenduta.

KONTZERTUA

GBH hardcore punk musikearen aintzindaria Areatzako jaietan

City Bobby Attacked by Rats disko mitikoaren 40. urteurreneko biran, geldialdia egingo dau Birminghameko taldeak Areatzako jaietan. Kontzertua hilaren 26an izango da, Radiocrimen taldeak jo ostean.



Erredakzinoa

GBH taldea, hasikera batean Charged GBH deitua, 1978an osotu

eben Collin Abrahall, Colin "Jock" Blyth, Sean McCarthy eta Andrew Williams-ek. McCarthy eta Williams-en faltan, gaur egun Ross Lomasek

joten dau bajua eta Scott Preecek bateria. Ospea 1982an lortu eban GBH taldeak, lehenengo estudioko diskoagaz: City Bobby Attacked by

Rats -Arratoiak erasotutako uriko haurra-. Diskoak berrogei urte bete dauzala-ta abiatu dabe aurtengo birea. Adituek hardcore

punk musikearen aintzindarizat hartzean daben taldeak hamaika disko argitaratu dauz daborduko. Baina ingelesen aurretik, Radiocrimen punk taldeak eskainiko dau kontzertua Areatzako plazan. 2012an sortutako taldeak Bilboko punk musikari entzutetsuek osotu eben: Luis "Punk" (Punk Guerrilla), Txarly "Usher" (Los Carniceros del Norte), Dani "El Mudo" (El Paso Killers), Iñaki "Gato" (Deskoncierto, Eskorbuto) eta Javi "Puñales" (Rat Zinger). Gaur egun "El Mudo", "Gato" eta "Puñales" ez dagoz eta Unai Santacoloma billaroztarra, David "Sopli" eta Gontzal dira taldekide barriak. Hamar urte honeetan, taldearen diskografia bost lanek osotuten dabe: *Matame*, *Antecedentes*, *Tercer Grado*, *Made in Baske Country* zuzeneko eta *Las peores cosas imaginables* *están sucediendo ahora mismo*, hurrengo hurrengo.

ZAHARBARRITZEA

Zeanuriko parrokiako organua zaharbarritua izango da

Hurrengo hamar hileetan egongo da Lope Alberdik 1910. urtean egindako organua barrizatze prozesuan. Turanzas Organeros enpresek elementu moderno barik erabarrituko dau, jatorrizko narru eta egurrak erabilita. Aurrekontua ia 80.000 eurokoa da, eta Zeanuriko parrokiak ordainduko dau, nahiz eta partikularren edo erakundeen edozein laguntza onartzen dan.

Jon Urutxurtu

100 urte betetean, 2010ean, eguneratze behar handia egin zan organuan, baina ez zan guztiz zaharbarritu eta atzen aldian ez dau funtzioatzen izan behar zan moduan. Hori guztia dala eta, garagarrian, 112 urte betetzear dagoela, organua zainketa intentsiboetan sartuko dala esan daikugu. A. Turanzas Organeros enpresa arduratuko da beharrezko lanak egiteaz: batzuk parrokian bertan egingo dabez eta beste batzuetarako, pieza desbardinak enpresak Igoarren daukan tailerrera eroango dabez. Elementu modernorik ez sartzea da zaharbarritzaileen konpromisoa, ezta jatorrizko eraikuntzan erabilitako materialez bestelakorik be. Jatorrizko narru eta egurrak erabiliko dira, eta kutxan eta fatxadan, kontsolan, tekladuan, noten eta erregistroen transmisinoan, sekretuetan, hauspoetan, motor-

haizegailuan, haize-ontzietan eta hodietan egingo dira lanak, eta ostean afinau egingo da.

112 urte

Zeanuriko parrokiako organua Bartzelonan eregi eban Lope Alberdik 1910. urtean, 15.000 pezeta ordaindu eban parrokiak eta 1910eko abuztuaren 15ean,

Andra Mari egunean, inaugurau eben. Organu erromantikoa da, 56 notako bi tekladu dituana, gehi 27 notako pedalontzi bat, eta transmisino mekaniko bidez funtzionatzen dau. Harribitxia da, Lope Alberdiren onena, Abadiñoko San Trokaz eta Areatzako San Bartolome parrokiarako eregitakoakaz batera, atzen hau 1912koa da.



Langileak organua zaharbarritzen.

UDA KULTURALA

Juantxu Urkiagaren talde barriak kontzertua eskainiko dau Igorren

Uda Kulturalaren egitarau barruan, Ut! taldea Bidebarriko plazan egongo da 70. eta 80. hamarkadetako euskal musikea plazaratzen, abuztuaren 15ean 20:00etan.

Erredakzinoa

Jokaldik bere ibilbidea amaituta, Juantxu Urkiaga eta eskarmentu handiko beste lau musikari Ut! taldea sortzean egon dira atzenaldian. Pandemia aurretik emon ebezan lehen pausuak Beñat Sernak, Jon Freskok, Iñaki Zabaletak, Markel Arevalok eta Juantxuk, baina urte biko geldialdiaren ostean aurtun berbiztu dabe proiektua. 1970 eta 1980. hamarkadetako musikeak Euskal Herriko plazetan sortzean eban giroa "barriro biziteko" helburua daukiela azaldu dau Juantxuk BEGINTUN: "Barriro jente-auurrera atera; barriro balorau". Holan, Errobi,

Itoiz, Benito Lertxundi eta Zaramaren abestiak berreskuratu dabez, besteak beste. Lehen esperimentua Bermeon egin eben bagilean eta Juantxuren esanetan, oso ondo joan zan, "kriston giroa!". Juantxuk uste dau, gaur egun atzerriko musikea dala protagonista eta oin dala 30 urte hemen egiten zana itzela zala, baina apurka-apurka plazagirotako galzorian dagoala: "Horrek ez dau esan gura ez gagozala gaurkoagaz ados, baina geurea ezin dogu galdu". Atzeraka begirada hori, taldeak aukeratutako izenean be iragarten da, izan be, ut gaurko do notea izan zan, XVII. menderarte.



AGENDEA

ABUZTUAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Uda osoan zehar, Uda Gorbeian Marrazki Lehiaketeta 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Marrazkiak bialdu gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arigune lez jarduteko, alkarte, establezimentu edo entidadeek, Euskaraldian parte hartzeako izen emotea zabalik www.euskaraldia.eus webgunean.

Abuztuaren 31ra arte, Pantailak Euskaraz Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Pantailak Euskarazen kamisetea jantzita oporretako argazkia, Instagram, Twitter edo Facebookera igoen @pantailakeus @pantailakeuskaraz #pantailakeuskaraz etiketatuz. Parte-hartzaileek sarien zozketan hartuko dabe parte.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

UBIDE

Ubidestroil Trail-en izena emoteko epea zabalik urri lehenengoaren 2ra arte, www.kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean.

zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

Abuztuaren 10era arte Zeanuriko Ortuen I. Txapelketeta.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegir sortutako espazioan ipini.

11:00etatik 13:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Hilaren 12ra arte.

ABUZTUAK 6
DIMA

Artaungo San Bizente jaiak. 18:30ean, txupinazoa eta Lourdes Soraluze XXIII. Bola Txapelketaren hasikerea; 20:00etan, txitxi-burduntzia; 22:00etan, Eingo taldeagaz erromeria.

ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendi. 12:00etan, mezea, gero barauskarria eta herriko txistulariak; 17:30ean, Mus eta Briska Txapelketak; bola jokoa eta sari banaketeta amaitzerakoan.

ABUZTUAK 7
ARTEA

Jose Mari Kortazar abadeari esker oneko agurra. 12:00etan, mezea. Ostean pintxoak postrea eta kafeagaz frontoian.

DIMA

Artaungo San Bizente jaiak. 12:00etan, bits jaiak; 13:00etan, trikipotea; 19:00etan, herrik kirolak: harrijasotzaileak, Karmele Gisasola eta Inhar Urruzuno; trontzalariak; azkolariak, Aitzol Atutxa eta Julen Larrea; eta ingudea, Karmele Gisasola; 20:30ean, trikitilariak, mozerro erakusketea eta errifearen zozketea; ostean, txokolata.

ABUZTUAK 10
LEMOA

Azurrekako San Lorentzo jaiak.

12:00etan, mezea San Lontxon; 13:00etan, kopaua eta trikitilariak; 13:30ean, erromeria; 18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketeta.

ZEANURI

San Lontxo jaiak (Uribe-Otzerinmendi). 12:00etan, meza nagusia eta ostean barauskarria eta herriko txistulariak; 17:30ean, bola jokoa, Uribe-Otzerinmendiko kanporaketeta; 18:30ean, Eingo taldeagaz jantzaldia.

Zeanuriko Ortuen Txapelketarako epea amaizen da.

BEDIA

San Lorentzo jaiak. 12:00etan, meza Murtatzen eta ostean barauskarria eta trikitixea; 17:00etan, Briska Txapelketeta.

ABUZTUAK 11
ZEANURI

San Lontxo jaiak (Uribe-Otzerinmendi). 12:00etan, arimen aldeko mezea; 13:00etan, andren bola jokoa; 17:30ean, bola jokoa (herriko finala) eta ostean urdaia eta txokolata danontzat.

ABUZTUAK 12
IGORRE

Udako Jaiak. 18:00etan, futbola, XXXIV. Igorreko Saria, Arratia-Baskonia. Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 13
AREATZA

11:00etan, Areatzako Uribildua ezetuten. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo www.basquemountains.eus webgunean emon daiteke.

IGORRE

Udako Jaiak. 18:00etan, futbola, XXXIV.

Igorreko Saria, Urduliz-Padura. Urbieta zelaian.

ZEANURI

Andra Mari jaien hasikerea. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus galekuan.

ABUZTUAK 14
IGORRE

Udako Jaiak. 18:00etan, futbola, XXXIV. Igorreko Sariaren finala. Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 15
DIMA

Olazabalgo jaiak. 12:30ean, Txakoli Egunaren hasikerea.

IGORRE

Udako Jaiak. 12:30ean, mezea; 13:00etan, kopaua Goiko Plazan; 17:00etan, Briska Txapelketeta Bidebarriko plazan; 17:30ean, Igel Txapelketeta Bidebarrin; 19:00etan, txokolate jana Bidebarrin; 20:00etan, Ut! taldearen kontzertua Bidebarriko plazan.

ABUZTUAK 16
BEDIA

San Roke jaiak. 12:00etan, mezea eta ostean hamaiketako eta trikitixea.

DIMA

Olazabalgo jaiak. 08:00etan, Ilunbera ibilaldia; 12:00etan, meza nagusia; 12:30ean, umeentzako jolasak; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketeta; 16:30ean, Umeen Bola Txapelketeta; 18:00etan, umeentzako opariak; 18:30ean, Patrice Dumoraren kontzertua; 19:30ean, txokolata eta 20:00etan, errifearen zozketea.

ABUZTUAK 17
DIMA

Olazabalgo jaiak. 14:00etan, auzo

bazkaria.

ABUZTUAK 20
ARANTZAZU

14:30ean, Arginatx Mendi Elkartearen bazkaria plazan. Izena Montero tabernan emon behar da, hilaren 15era arte.

UBIDE

10:00etan, Ubideko antxinako kaltzadatik ibilbidea. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo www.basquemountains.eus webgunean emon daiteke.

ABUZTUAK 23
AREATZA

14:00etan, txupinazoa. Jaien hasikerea. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 26
AREATZA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus galekuan.

ABUZTUAK 27
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Elkartearen urtekerea: Itzinako mendiak.

ZEANURI

11:00etan, Undurragako urtegiari buelte Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo www.basquemountains.eus webgunean emon daiteke.

ABUZTUAK 31
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Pantailak Euskaraz Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeako atzen eguna.



Demode Quartet taldearen a
capella emonaldia Zeanurin

Abuztuaren 15ean, astelehena, Demode Quartet laukoteak eskainiko dau kontzertua Zeanuriko plazan, 22:00etan. Hamabi urteko esperientzia daukan taldeak ahotsak bakarrik erabilita egin dauz oin arte emondako 300 kontzertuak, noizean behin instrumenturen bat erabilten badabe be. Joli, Iker, Santi eta Mikeltxu dira laukotearen ahotsak.

2010etik, bost ikuskizun ekoiztu ditue: *Demode Quartet*, *EPA!*, *Musikal guztiak IA IA*, *Epa txiki!* eta *Demode Kontzertuan*, hurrengo hurrengo. Euskal Herrian bakarrik ez, Espainiako areto askotatik pasautakoak dira, baita La Habanatik be. Gainera, Broadway Spain sarietan antzerki-ekitaldi onenaren kategorian izentau eben taldea 2018an.



KOMIKIA

Kailo Ren

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK SALTZEAN DODAZ
 Altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI
 Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
 Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Telefonoa: 629 461 077.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN
 Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka. 10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841 058 telefonoetara deitu edo rakelgoni@gmail.com helbidera idatzi.

SALTZEAN DODAZ
 Ostalaritzako makineria eta altzariak saltzean dira: oilasko burruntzia, konbekzino labea eta prijiailua. Ondo

zaindutako egurrezko zibua eta ume-aulkia oparitzen dira. Burdinola argiontzia be saltzean dodaz. Telefonoa: 620 276 471.

LANA LAN-BOLTSEA
 Igorreko Guraso Elkarreak lan-boltsea zabaldu dau. Edozein dala afizinoa: kirola, sukaldaritza... bialdu zure datuak gurasoelkartea@igorrekoeskola.com helbidera izena emoteko.

GARBIKETA LANAK
 Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Karmelo Uriarteren
 "Ederriko". Kontau
 behar dot liburu bana.

Jose Ramon Arbe (Gasteiz)
 Amaia Espinosa (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umeen modu

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmodu@hotmail.com

BIZARGINAK

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Etxarra egin eta bukunduten dogu.
 Tel. 94 607 78 33

Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ASEGURUAK:

AUTOAK
 ETXEBIZITZAK

ZUZENBIDE
 AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITEA

DENDAK
 ISTIRIPUAK
 BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3, behea • Igorre (Bizkaia)

Pinturas Aratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

KIRRU

ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROSER

SABINO ARANA 38 IGORRE

Tlf. 94 631 92 00

Dia %

PEDRO

AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre

Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a

Igorre 48140 Bizkaia

Tel: 94-673-70-87

Tel: 609-79-40-54

BIXER

TABERNA

Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

ZEKUTZE

JATETXEA

Sabino Arana, 34

48140 IGORRE • Bizkaia

Tel.: 94 631 52 83

zekutzejatetxea@hotmail.com

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19

48140 Igorre

94 631 52 26

begitu

eus

Arratia-Ubide-Zeberio

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urteko 19a

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen duan Zertu Kultur Elkartea, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.